

Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi



2020

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak

Komunitate berdinzale eta inklusiboa

Podemos eta giza bakekulturen
erabaketa eragiten duen Euskadi
Redes para la inclusión social en Euskadi
European anti poverty network
in the Basque Country



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte

EUSKADIKO GIZARTE EKIMENAKO ETA
ESKU HARTZEKO ENTITATEEN ELKARTEA

Hirekin 
ASOCIACIÓN DE ENTIDADES DE INICIATIVA
E INTERVENCIÓN SOCIAL DE EUSKADI



ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria



Ekain elkarteak gizarteratze arloan lan egiten duten Euskadiko gizarteratze arloko 4 erakunde-sare biltzen ditu: **EAPN Euskadi** (Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea), **Gizatea** (Euskadiko Gizarteratze-enpresen elkarte), **Hirekin** (Gizarte ekimen eta esku-hartzerako Euskadiko erakundeen elkarte), eta **REAS Euskadi** (Ekonomia alternatibo eta solidarioaren Euskadiko sarea). Helburua gizarte inklusiboagoa sortzea da, berdintasunean, elkartasunean eta partaidetzan oinarritutako politika eta balioen bidez. Sare horiek **170 erakundetik gora** hartzen dituzte barne, **7.000 profesional** inguru eta **milaka bazkide eta boluntario**. Gizarte arloan lan egiten dute: enplegua, gizarte zerbitzuak, kultura artekotasuna, babes soziala, aukera berdintasuna, pobrezia eta bazterkeriaren aurkako borroka, garapen komunitarioa, ekonomia solidarioa, eta abar.

Venezuela plaza, 1, 2. ezk.-ezk. • 48001 Bilbo
ekain@ekainsarea.net • www.ekainsarea.net

Hauteskundeak uztailaren 12an dira, eta hitzordua inoiz baino garrantzitsuagoa dela esan genezake, azken hilabeteotan bizitakoaren ondoren. Covid-19aren krisi global honek irakatsi digu sistema sozial sendo baten alde egin behar dugula, babesgabetasun egoera handienetan dauden pertsonen erantzun ahal izateko. Kontzeptu batzuek inoiz baino zentzu handiagoa hartu dute: ongizatea, garapen soziala, iraunkortasuna edo elkartasuna.

Uste dugu benetako apustu politikoa ekintzen bidez erakusten dela, pertsonen bizikaltatea hobetzeko asmoz egindako lanarekin. Helburu nagusia berdintasuna eta justizia soziala lortzea izan beharko litzateke, giza garapenaren eta iraunkortasunaren esparruan. Konpromiso politikoa eta aurrekontuak sendotu beharra dagoela uste dugu, herritar guztien ongizatea bermatze aldera; batez ere, egoera babesgabeenean dauden sektore horienak. Giza eskubide eta eskubide sozialen defentsan oinarritutako konpromisoa, azken finean.

Ekain sarearen bidez, konpromiso hori zabaltzeko nahi dugu alderdi politiko, gizarte eragile eta herritar guztien artean. Uste dugu lehentasunezkoak direla erkidego mailan, eta beharrezkoak gizarte inklusibo eta solidarioagoa lortzeko.

Eraiki nahi dugun gizarte eredua lortzeko, eskubide sozialak defendatu behar ditugu. Horretarako, funtsezkoa dugu babes sozialerako sistema sendoa izatea, diru-sarrerak bermatzeko eta pertsona guztiak babesteko sistemekin, bereziki zailtasun handienak dituzten pertsonak kontuan hartuz, eta, horrela, gizarte bidezko eta kohesionatuagoa eraikiz.

Ulertzen dugu Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratze arloko Errenta sistema funtsezkoa dela Euskadiko babes sozialaren sisteman. Hori dela eta, sistema hori sendotu behar dela uste dugu, eta, beharrezkoa balitz, zabaldu, pobreziari eusten eta kohesio soziala mantentzen jarraitzeko asmoarekin, bereziki pandemia garaian eta pandemiaren osteko sasoietan; izan ere, bazterkeria eta desberdintasun egoerak areagotzeko arriskua izango dugu.

Covid-19aren ondoriozko krisiak gure babes sistemarekin erlazionatutako arazo batzuk agerian utzi ditu. Era berean, pertsona guztien eskubide sozialak bermatzeko beharra argi geratu da. Ikuspegi horretatik, hurrengo legegintzaldirako honako erronkei heldu behar diegu:

- Uste dugu une egokia dela gizarte zerbitzuak berrantolatzeke: Ematen ari ginen eta funtzionatu ez duten erantzunak aztertu, formatu berriak bilatu, malguagoak izan, eta pertsonengan zentratzeko.
- Azken hilabeteen Gutxieneko Diru-sarreraren inguruko erabaki bat hartu da estatu mailan. Prestazio berri hori honela planteatu da: “gizartean erabateko garapena lortzeko baliabiderik ez izatearen ondorioz bazterkeria egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko tresna”. Prestazio berri hori egungo diru-sarrera sisteman integratzeko urrats zehatzak eman behar dira.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentak garapen bat izan du, baina, Gizarteratze arloari begira, garapena ez da hain sakona izan. Beste sistema batzuen baitan ematen dira laguntzak, batez ere enplegu arloan, baina hori ez dator bat bazterkeriaz gaur egun ulertzen dugunarekin. Izan ere, kausa eta dimentsio anitzeko fenomeno da, eta ez dauka zertan lan-merkatuaren egoerarekin soilik lotuta egon. Garrantzitsua da gizarte inklusiorako euskal sistema bat garatzeko erantzunak pentsatu eta ematea, ikuspuntu integral batetik.
- Administrazio publikoen eta departamenduen arteko koordinazioa funtsezkoa da, pertsona guztiok bizimodu duina izatea bermatzeko. Diru-sarreraren bermerako politikak, gizarte zerbitzuak, enplegu inklusiboa, etxebizitza politikak eta politika fiskalak... horiek guztiak hartu behar dira kontuan eta denak erlazionatu, eta ikuspegi feminista txertatu, kontuan izanda emakumeen egoera are zailagoa dela.

Aurrean ditugun erronkek ikuspegi ekonomiko praktikoa eskatzen digute. Toki mailan zein maila globalean, pobrezia egoerak eta desberdintasunak areagotu egin direla nabaritu dugu, eta emergentzia ekologikoa ere ez dugu ahaztu behar.

Covid-19aren pandemiak bizia prozesu ekonomikoen erdigunea jartzeko beharra are gehiago azalarazi du. Krisi honen osteko susperraldi ekonomiko eta sozialerako estrategien oinarrian denon ongizatea, kohesio soziala eta ingurumen-iraunkortasuna egon behar dira.

Horregatik, gure sareen ikuspegi inklusibo eta solidarioaren bidez, uste dugu gizarte osoak, erakunde publikoek eta Eusko Jaurlaritzak honako erronkei aurre egin behar diétela:

- Kohesioa eta babes soziala bermatzeko oinarrizko sistemak bultzatzera bideratutako aurrekontu publikoa lehenestea. Osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta gizarteratzea.
- Produkzio-sistemaren jarduera guztiek bizia erdigunean jartzea: Erabilgarritasun publikoko zerbitzu eta ondasunak denon ongizatearen alde jartzea, ekonomia zuzen eta zirkularra sustatzea, produkzio eta erreprodukzio lanak kontziliatzea, eta abar.
- Inbertsio publiko arduratsuko tresnak garatzea jarduera ekonomikoa funtsezko sektoreetara bideratzeko, enpresa antolakuntza arloko eredu sozial eta berdintasunezkoak sustatzea, edota ingurumen arloko jarduera ez iraunkorrak eraldatzea.
- Tokiko kate ekonomiko iraunkorren garapena sustatzea: Tokiko produkzioa, finantzaketa etiko eta arduratsua, merkaturatze ibilbide laburrak eta tokiko merkataritza, kontsumo arduratsua, eta abar.
- Pertsonak lehenesten dituzten enpresa eta ekonomia jarduerak, kohesio soziala eta lurralde mailakoa sustatzea: Ekonomia soziala, ekonomia solidarioa, hirugarren sektore soziala, eta abar.
- Bereziki, denon ongizatearen zerbitzura dagoen gizarte ekimena eta herri ekimena sustatzea, hala nola banka etikoa, sorkuntza kooperatibak, merkaturatzea eta energia berriztagarrien kontsumoa, nekazaritza eta abeltzaintza sustatzeko ekimenak eta elikadura arloko burujabetasuna, bidezko merkataritza, hondakinen kudeaketa iraunkorra, garapen komunitarioa, teknologia irekiak, komunikazio askea, eta abar.

Enplegu inklusiboaren estrategia integrala garatzea

Covid-19aren egungo krisiak sortutako langabeziak are gehiago eragingo die bazterkeria arriskuan edo bazterkeria egoeran dauden pertsonei. Beren lana galdu duten edo galduko duten pertsonetako asko zailtasun handienak dituzten kolektiboetakoak dira. Laneratze-ibilbideak arrakastaz burutu dituzten pertsona batzuek laguntza beharko dute berriz.

Egoera honen ondorioz, inoiz baino beharrezkoagoa da enplegu inklusiborako estrategiak martxan jartzea. Azken urteetan sustatzen ari gara estrategia horiek, eta honakoak dira irizpide eta beharrianak:

- Esku-hartze eredu integral bat sustatzea, lan-merkatutik urrunen dauden pertsonekin lan egiteko, eta esku-hartze pertsonalizatuagoa emateko, beharrezko iraupenarekin.
- Indarrean dauden programak eguneratu eta hobetzea: Orientazio, prestakuntza eta bitartekaritza programak berriztatzea, beharrian handiena duten pertsonekin lan egitea, eta zerbitzuen jarraitutasun eta egonkortasuna bideratzea.
- Zerbitzuen egokigarritasuna eta irisgarritasuna sustatzea: Zerbitzuen eskaintza eta kudeaketan “denontzako kafea” planteatu izan dugu, baina zerbitzu horiek beharrian eta zirkunstantzien arabera egokitu behar dira (anitzak eta konplexuak):
 - Programen inplementazioa malgutzat, horrela, programa horiek lan-merkatutik urrunen geratu diren pertsonen errealtatera egokituko dira, eta inor ez da gestio irizpideengatik kanpoan geratuko.
 - Lan aurreko izaera duten prestakuntza ekintzen eta ibilbideen errekonozimenduan sakontzea.
 - Ibilbideak gauzatu eta enplegu inklusiboa lortzeko zerbitzuak ematea: Zaintza, garraioa, malgutasuna, eta abar pertsonentzat, batez ere zaintza-ardurak dituzten emakumeentzat; izan ere, krisi honetan zailtasun handiak izan dituzte lana berreskuratu edota beren ibilbideekin jarraitzeko.
- Enplegu inklusibo gehiago eskaintzea, lan-merkatura sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen alde:
 - Laneratze arloko enpresen sektorean lekua handitzea. Enplegu inklusiboa mantentzeko gaitasun eta eraginkortasuna handia erakutsi dute, eta hortik lan-merkatu arruntera salto egiteko aukera ona da.
 - Prestakuntza eta kontratazioa uztartzen dituzten tarteko programak berreskuratzea; iraganean eraginkorrak izan dira: Auzolan, betikolan, tailer-eskolak, enplegu eta prestakuntza programak, eta abar.
 - Ekonomia sozialeko enpresa-proiektuak sustatzea, enplegu inklusiboak sortze aldera.
 - Lan eremu arruntarekiko harremanak sendotzea, enplegu inklusiboa sustatzeko: Laneratze-enpresetatik eta prestakuntza zerbitzu espezializatuetatik datozen pertsonak kontratatzeagatik pizgarriak ematea eta praktika programak pertsona horientzako egokitzea, bitartekaritza lanak finantzatzea, eta abar.

- Enplegu inklusiboa sortzeko lanean erantzukizun publikoa izatea, erosketa arduratsua egiteko neurrien bidez:
 - Laneratze-enpresetarako kontratu erreserba bat ezartzea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak eta Eusko Jaurlaritzak markatzen duten moduan (2018ko apirila): ezarritako portzentajeak ezarri eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoak definitzea.
 - Era berean, eta legeriaren arabera, irizpide sozial horiek sartzea adjudikazio-irizpideetan eta bestelako baldintzetan, bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak kontratatzeko.
- Enpleguaren kalitateari, diru-sarreraren bermeari eta gizarteratzeari buruzko eztabaida sozial eta politikoa sustatzea, estrategia integralak eta tresnak planteatuz, kontuan hartuz lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen edo pobrezian bizi diren langileen egoera kroniko bihurtzen ari dela.



Hurrengo legegintzaldiaren ezaugarri nagusiak COVID-19aren ondoriozko krisia eta “normaltasun berrirako” trantsizioa izango dira. Gure egoera guztiz aldatu da eta erronka gehiago ditugu orain. Horiei aurre egiteko, inoiz baino beharrezkoagoa da elkarrizketa zibila sustatzea eta erakunde publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialaren arteko elkarlana sustatzea, errealitate berrira egokitutako erantzunak eskaini ahal izateko.

Legegintzaldi berriaren testuinguruan are agerikoagoa da gobernantza estilo parte-hartzailea behar dugula, eta gizarte zibilak modu antolatuan parte hartu behar duela politika publikoen diseinuan.

Eskubide sozialen esparruan, egungo krisiak lehendik ere bazeuden arazo asko larriagotu egin ditu, eta pertsona gehiago daude arrisku eta babesgabetasun egoeran. Hori dela eta, politika sozialen aldeko apustua funtsezkoa izango da pertsonen bizikaltatea bermatzeko, uztailaren 12tik aurrera.

Testuinguru horretan, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala osatzen duten erakundeek beharizan handiko unean erantzun dute, konpromisoa mantenduz eta pertsonen babesgabeen beharrezkoak lehentasuna emanez.

- Hori dela eta, Ekain sarearen izenean, beharrezkoa da Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen ahotsa sendotzea politika publikoen diseinu, jarraipen, kudeaketa eta ebaluaziorako. Politika sozialetan ekarpenak egin eta parte hartzea bideratu behar da, baina baita ekonomia, osasun eta bestelako arloetan ere.
- Uste dugu ezinbestekoa dela elkarrizketa zibila bideratzen jarraitzea eta lankidetzaren etengabea izatea erakunde publikoen -bereziki Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarra- eta Hirugarren Sektore Sozialaren artean.
- Hirugarren Sektore Sozialaren ekarpena eta gizarteratzea hurrengo legegintzaldirako lehentasunak izan behar dira, zerbitzuen kalitatea eta egonkortasuna garatzeko, eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek ematen duten balio erantsiari aitortza eman, gizarte bidezko, kohesionatu, solidario eta inklusibo bat eraikitze beharrezkoak izango baitira. Zentzu horretan, garrantzitsua da Kontzertu Sozialaren figura garatzea, gizarte ekimeneko erakundeekin.
- Aurreko guztia kontuan izanda, alderdi politikoekin hitz egin eta lan egiteko prest gaudela adierazi nahi dugu, hainbat gairi erantzuna emateko, hurrengo legegintzaldira begira gobernantza parte-hartzaile hau nola burutuko den argitzeko:
 - Zein izango da Hirugarren Sektoreko Sozialeko erakundeen egitekoa politika publikoen eraikuntzan?
 - Zein espazio egokituko dira erakunde publiko eta gizarte erakunde lankidetzaren burutzeko?
 - Zein gizarte-ekintza ildo dira lehentasunezkoak une honetan, eta nola egituratuko dira?